

noaua

**Hazilan, gazte
enplegua sustatzeko
ekimena**

**Zirimarak hiru
hezitzaile behar ditu**

**Asteburu honetan
Santuenea jaietan
izango da**

A portrait of a young man with dark, wavy hair and a light beard, looking slightly to the side. He is wearing a dark blue, textured t-shirt. The background is a blurred outdoor setting with brick buildings.

Asier Azpiroz bertsolaria:
**“Txapelketa da kantatzeko
dagoen tokirik errazena”**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2019-2020 Ikasturtea

Matrikula epea zabalik

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarritzko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkulazio hastapena eta hobekuntza. Oinarritzko matematika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

Islandia

(kruzeroa)

Noruegako

Fiordoak

(kruzeroa)

Rusia

Eslovenia
& Istria

Zetako
bidea

(Uzbekistan)

BIDAIK
TALDEAN



IRTEERA 2020

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13

info@noaoa.eus

noaoa.eus

Opariak eta
barruko
landareak



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

%100 bertako sagarra



ONDO PASA
SANTU-ENEAKO
JAIETAN!

*Txotxetik sagardoa
jarrailu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

Albiste iruditzen

Hobekuntzak Aginagako ur sarean



Usurbilgo Udaleko brigada ari da bideratzen lanok, "Borda baseritik Lasaora arte, Bereziartua aroztegitik, Irigointxoberri baseritik eta Irigointxozarra baseritik pasatuta". Aurrekontuetako 95.000 euroko partida bideratuko du Udalak hobekuntza lanotara. "Lanak udal brigadaren esku uzteak hobekuntzak etxe gehiagotara iristea ahalbidetuko du", ohartarazi du Udalak, ondoko argazkia plazaratzearekin batera. Argazkia: Usurbilgo Udala.

Laburrean

Argazkilaritza lehiaketa Santuenean

Irailaren 16a baino lehen Santuenea Elkaratearen argazki lehiaketan izena eman zutenek hilaren 30era arteko epea dute lanak aurkezteko. Gaia; "Santueneko oztopoak". Informazio gehiago: 670 027 731 edo auzo elkartean.

Sexologiari buruzko saioak

Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoak eskainiko ditu, Santuenea Elkaratearekin elkarlanean. Hiru saioetako lehena, irailaren 27an 18:00etan auzo elkarteko egoitzan. "Sexologia oinarriak" hartuko ditu ahotan.

Kantu zaleak, plazara

Aurrerantzean, astelehenero bilduko dira ikastarorako, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan. Ikasturte berriko lehen kantu-jira hilaren 28an egingo dute, 12:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta. Kantu-liburuxkarekin bertaratu.

noa

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaueus // www.noaueus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritzalar.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Ebidentzia ukaezina

Irudikatu une batez astebe-
tez dutxatu gabe izan eta
esajeratzen hasita, gainera
20 kilometroko itzulua eman
berri duzula. Zure ingurura
nor bait hurbiltzen dela eta
zuk “bost zenbakidun txane-
la” botata atera zarela etxetik
erantzuten diozula. Irudikatu,
uda giro betean, elikagaien bat
etxean usteltze puntuan duzu-
la. Edo Atxegalde inguruan
bizi, leihoak ireki, eta abuz-
tuan izan ezik, urtean zehar
une ezberdinetan garbigailutik
atera berri duzun arroparen
garbigarri usaina ere kendu
diezaiokeen adinako kirats
usaina sudur zuloetatik sartu
eta etxeko leiho guztiak ireki-
tzen dituzula kirats usain hau
oheko maindireek ere usain
“gozo” hau izateko.

Burugabekeria edo zen-
tzugabekeria galanta ezta? Ba
begira zer gertatu berri den.
Esaldi bakar batean ezinhobe-

tu laburbildu du. Bai, anekdota
bat besterik ez da, argi izan.
Izeberg-aren punta, baina per-
tsonen jarrera, izateko moduz
zeresana eman dezakeena.

Gogoan izan, atzera kontake-
ta betean jarri gaituzte. Urria
erdialdean martxan (probaldi
fasean) jarri nahi dute (kea da-
riola behin baino gehiagotan ari-
tua da jada) Zubietako errauste-
gia. Bisita gidatu “turistiko” bat
antolatu zieten hedabideei joan
den ostiralean, ingurumenaren
gune deitzen dioten, errausketa-
ren zero gunera. Biometanizazio
planta martxan dutela esateko,
lanpostu eta argindar sortzaile
izango dela eremua, abangoar-
diako azpiegitura sarea izango
dela nabarmentzeko...

Eta “txanel 5” zenbakidun
usainduna. Ez, azken hau ne-
ronek asmatutakoa da noski.
Baina ez da oso urrun. Atxe-
galde aldean orain hainbat urte
bezala, hasi gara Zubietako gai-

nean ere ebidentzia hutsa dena
ukutzen. Begira bestela joan
den asteko bisita gidatu turisti-
kora gonbidatu zuten kazetari
batek bere kronikan hitzez hitz
jasotakoa. “Sistema garbia dela
eta ez duela usaintzen aipatu
zuen Kontsortzioko presiden-
teak (Gipuzkoako Hondakinen
Kontsortzioko lehendakari Jose
Ignacio Asensiori buruz ari da),
baina guk behintzat usaina su-
matu genuen”.

Erraustegia sakon ebaki du-
ten ingurune ederraren koloreko
ingurumen gune bilakatu nahi
badute ere, tximinia izan arren
isuriko duen kea ezkutatu nahi
badute ere, usainik gabekoa
izango dela ziurtatu arren... Ge-
zurra gezurraren gainean eraiki
nahi arren, egia ezin ezkutatu.
Balorazio energetikoko planta
erraustegia izan da betidanik,
kea beti kea, eta usaina kiratsa.
Hori da etor dakigukeena. Hori
guztia, larrialdi klimatikoaren

aldarria eta kezka bolo-bolo
kalean dabilenean. Europak
martxan jar dezakeen azken
erraustegia Zubietakoa izan
daitekeenean... Historikoa gai-
nera.

Goian dugu erraustegia, eta
aldaketarik ez bada, goitik be-
hera ikusi eta arnastu beharko
dugu gutxi barru. Goian agin-
tariak, behean herria. Kasua-
litatea? Zubietakoa tartean.
Duintasun eta ausardia osoz,
goikoek derrigorrez egitera be-
hartuak egon arren egin ez du-
ten hori egiten; piztear duten
erraustegiak jaurtiko dituen
kutsagaien inguruko azterlana
bideratzen, nazioarteko zien-
tzialarien laguntzaz. Adi egon
beharko emaitzei, eta batez
ere eremu ederra izan arren,
oraintxe bertan begiratu nahi
ez dudana goialde horretara be-
gira egon behar orain. Hortik
etor daiteke urte luzeetako al-
biste kirasdun nagusia.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Badator 5G teknologia

Bosgarren belaunaldiko tek-
nologiarako egokitzeko garaia
dugu. 5G teknologia berria-
rentzat 700 Mhz banda libre
utzi beharra dago. Horretar-
ako, telebista kateak berriz
sintonizatu beharko ditugu
hurrengo hilabeteotan, kate
berriok seinale berrian ikusi
ahal izateko egungo seinalea

itzali baino lehen. Aldaketa
honek ez dakar telebista kate
berriak ikusteko aukera, ezta
orain arteko kateen desager-
tzerik ere.

Ez omen da telebista edo
LTD deskodegailuak aldatu be-
harrik izango, baina bizileku
bat baino gehiagoko eraikin
ertain eta handietako ante-

nak berregokitu beharko dira.
Aldaketa hau egiteko eraikin
bakoitzeko etxe jabeen erkide-
goak erregistraturiko instala-
tzaile bati aldaketa egitea eska-
tu beharko dio. Egokitzapenok
egiteko diru-laguntzak iragarri
ditu Espainiako Gobernuak.
Telebista ikusten segi nahi ba-
dugu, moldaketa hauek 2020ko

ekainaren 30erako egin behar-
ko dira. Egun horretan, gaur te-
lebista kateak ikusteko dugun
seinalea itzali egingo dute eta.

5G-arentzako frekuentzia be-
rria irailaren 9an piztu zuten.
5G-ak konexio abiadura azkar-
tuko du eta sareak duen eran-
tzuteko gaitasuna ere bai. Ko-
nektagarritasuna hobetuko da.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Hazilan, gazteentzako enplegua sustatzeko programa

Gazteak lan mundura bideratzeko xedez sortu zen Hazilan programa. 20 eta 44 urteko gazteei zuzendua dago eta xede bikoitza du: goi mailako titulazioa dutenak aktibatu batetik, eta praktiken bidez lan merkatuan murgildu arazi bestetik. Metodologia berriak baten bitartez, ibilbide pertsonalizatu bat eskaintzen zaio gazte bakoitzari. Irailaren 20an amaituko da izen ematea.

Hazilan laneratze-proiektua 2016an jarri zen abian. Garapen Agentzien Euskal Elkarteak da ekimen honen sustatzailea eta Eusko Jaurlaritzaren zein Europako Gizarte Funtsaren (%50eko finantziazioarekin) laguntza jasotzen du. “Lanagabetuen artean, 20-44 urte bitarteko gazte kualifikatuak, unibertsitate tituludunak edo goi mailako ikasketak dituztenak erronka nagusi dira guretzat”, prentsa-ohar bidez jakinarazi dutenez.

Teorikoa eta praktikoa

Bi zatitan garatzen da Hazilan egitasmoa. Lehen zatian orienta-



Beterri-Buruntzako Udalek Hazilan proiektua abiarazi dute. Gazte enplegua sustatzea da egitasmo honen helburua.

HAZILAN

“Langabetuen artean, 20-44 urte bitarteko gazte kualifikatuak, unibertsitate tituludunak edo goi mailako ikasketak dituztenak erronka nagusi dira guretzat”

zioa jasotzen dute. “Zeharkako kompetentzia sozioprofesionalak eta ahalduak landuz, lan-munduan sartzeko prozesua erraztea du helburu”.

Programaren bigarren zatia praktikarekin lotuta dago.

Eta fase honetan “lanbide-trebakuntza hobetuko duen lanpostuari lotutako esperientzia eskuratuko dute”.

Izen emateko epea, irailak 20

Programan parte hartu nahi duten gazteek zein enpresek webgune honetan lor dezakete informazio gehiago: hazilan.eus. Baita Andoaingo Udalean ere. Gogoan izan Andoain delako Beterri-Buruntzako garapen agentziaren egoitza:

■ Urigain etxea. La Salle etorbidetza, 6. 20140 Andoain. Gipuzkoa.

■ 943 304 221.

■ hazilan@andoain.eus

Aginagako jaietako otorduetarako erreserbak

Urriaren 3an, 4an, 5ean, 6an, 11n eta 12an ospatuko dira aurtengoan. Egitaraua datorren astekarian. Baina adi, antolatu dituzten otorduetarako txartelak aurrez izango dira salgai:

■ Urriak 5, 21:30 Herri afaria frontoian. Sarrerak Arraten irailaren 29ra arte salgai; helburuak 25 eurotan eta haurrenak 12 eurotan.

■ Urriak 11, 21:00 Gazte afaria Aginaga sagardotegian. Sarrerak urriaren 6ra arte Aitzagan eta Arraten 25 eurotan salgai.



Dagoeneko salgai dira urriaren 5eko eta 11ko afarietarako txartelak.

Urriaren 12an, 1979ko kinto bazkaria
“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

Urriaren 19an, 1955eko kinto eguna

Urriaren 19an ospatuko dute. Añana Gatzaga bisitatu, Nerbioi saltoa ikustatu eta Urduñan bazkaldu. Aurrekontua, 65 euro inguru. Izena eman iraila bukatzerako, erreserbak garaiz egiteko. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Edo emailaz: 1955usurbil@gmail.com

Urriaren 26an, 1952ko kinto bazkaria

1952an jaiotakoak urriaren 26an larunbata Saizarren bilduko dira bazkaritarako. Izen emateko epea urriaren 19ra arte dago irekita: 620516715 (Javier).

Urriaren 26an, 1946an jaiotakoak bazkaria

Urriaren 26an bilduko dira Antxeta jatetxean. Bertaratu nahi duenak aurrez eman dezala izena, 943 36 34 48 (Laurok) telefono zenbakira deituta, urriaren 20a baino lehen.

1969an jaiotakoak, urriaren 26an Atxegan

“Bazkalostean, musika eta giro ona izango ditugu”, iragarri dute. Aurtengo 50 urte beteko dituztenen bilkurarako izen ematea aurrez bideratu beharko da, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

Zirimarak hiru hezitzaile behar ditu

Udarregi Ikastolak, NOAUA! Kultur Elkar-teak eta Usurbilgo Udalak sustaturiko Zirimara eskola kiroleko egitasmo eraberriturako hiru hezitzaile behar dira.

Deskribapena

Usurbilgo eskola kirolean lanean jarduteko hiru hezitzaile behar dira. Zirimara proiektuan jardungo dute beste lau hezitzaileekin elkarlanean. Lanaldia urriaren 1etik ekainaren 15era artekoa izango da. Asteko lau orduko kontratua izango dute.

Bila gabiltzan profilaren ezaugarriak

■ Aisialdiko zuzendari tituluduna edo/eta aisialdiko begirale tituluduna (ezinbesteko baldintza).

■ Lanpostuarekin erlazioan tutako lan-esperientzia izatea. Zehazki:

-Gorputz adierazpenaren arloan (dantza, zirkoa, mimitika...).

-Kaleko zein naturako joko-jolasetan.

-Aisialdiko zuzendari edo/eta hezitzaile moduan.

■ Usurbildarra eta euskal hiztuna izatea.

Hautagaien balorazio prozesua

1. Bidali zuen curriculum-ak eskolakirola@udarregi.eus helbidera edo utz itzazue Udarregiko zein



Lanaldia urriaren 1etik ekainaren 15era artekoa izango da.

ZIRIMARA

“Bidali curriculum-ak eskolakirola@udarregi.eus helbidera edo utz itzazue Udarregiko zein NOAUA!ko idazkaritzan. Epea: irailak 24”

NOAUA!ko idazkaritzan irailaren 24rako (24a barne). CV-ak ondorengo irizpideen arabera baloratuko ditugu:

■ Hezkuntzarekin zerikusia duen formazioa.

- Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten graduak eta masterrak: 2 puntu.

- Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin zerikusia duten

goi-mailako teknikariak edo eta Aisialdiko zuzendari titulua: puntu 1.

■ Lanpostuarekin erlazioan tutako lan-esperientzia (kontratuduna).

- Heziketa fisikoko irakasle moduan jardundako ikasturte bakoitzeko 6 puntu.

- Lehen hezkuntzan irakasle moduan jardundako ikasturte bakoitzeko edo aisialdiko zuzendari moduan jardundako hilabete bakoitzeko 4 puntu.

- Eskola kirolean jardundako ikasturte bakoitzeko edo aisialdi jardueretan (udajolas, udako kanpamenduak...) jardundako hilabete bakoitzeko 2 puntu.

■ Lanpostuarekin zerikusia duten bestelako jarduerak.

- Gorputz adierazpen jardueretan edo kalean/naturan egindako joko-jolasetan boluntario moduan izandako jarduna: 0,5 puntu.

- Udako kanpamenduetan edo aisialdi taldeetan ikasturtean zehar boluntario moduan izandako esperientzia: 0,2 puntu.

2. Curriculum guztien artetik bost hoberenak hautatu eta, irailaren 26an arratsaldeko 17:00tan, elkarrizketa batera deituko ditugu Potxoenean. Bost horietatik hiru hautatuko dira, epaimahaiaren ebazpena irailaren 27an ezagutzera emango delarik.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Ikastaro ugari, abiatzear

Etumeta AEK

euskaltegia

Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikas-kuntza... eskaintza zabala aurren ere euskaltegian. Urriarekin batera abiatuko den 2019-20 ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dute. Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara.

■ Informazio gehiago:

Nagusia, 43

607 609 379

usurbil@aeek.eus

aeek.eus

muntteri.blogspot.com.es

Einean Guraso Eskola

Irailaren 20a baino lehen biderratu beharko da izena, Einean Guraso Eskolak iragarri duen ikastaro eskaintza honetan:

Oinarrizko argazkilaritza digitala

■ Oinarrizko argazkilaritza digitala I:

■ Noiz: asteartero 19:00etan.

■ Ordu eta erdi.

■ Iraupena: urria-abendua.

■ Adina: 16 urtez gorakoen-tzat.

Oinarrizko argazkilaritza digitala II:

■ Noiz: ostegunero 19:00etan, ordu eta erdi.

■ Iraupena: urria-abendua.

■ Adina: 16 urtez gorakoen-tzat.

■ Baldintza: Lehenengo zatia eginga izatea edo argazkilaritza digitalari buruzko ezagutza izatea.

■ Irakaslea: Ibai Arrieta (635 70 14 73 / argazkikastaroa.usurbil@gmail.com).

Bitxigintza ikastaroa

■ Noiz: astean behin bi ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: "Ikastaro honetan esperimentazioaz gozatuko dugu. Bitxiak egi-



Yogan aritzeko hainbat aukera dago. Einean Guraso Eskolaren eskutik edota Santuenea Elkarteak antolatutako duen ikastaroaren bitartez.

teko dauden aukeretako batzuk ezagutuko ditugu eta teknika ezberdinak praktikan jarri, guretzako edo oparitzeko bitxiak sortuko ditugu".

■ Irakaslea: Agara Agirre, (653710073).

Laboreak

■ Noiz: astean behin bi ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: bolilloak, punto cruz, gantxilloa...

■ Irakaslea: Juani (609413883).

Yoga

■ Noiz: astean behin ordu eta erdi.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: luzaketak, arnasketak, lasaitzea...

■ Irakaslea: Katia (636 71 15 14) / Sebas (605 72 28 25).

Pintura

■ Noiz: astean behin bi ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: oleoa, akua-rela, pastela...

■ Irakaslea: Susana (609413883).

Eskulanak

■ Noiz: astean behin bi ordu.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko.

■ Irakaslea: Susana (609413883).

Sabel dantza / Hip hop

■ Noiz: astean behin ordu eta

erdiz.

■ Iraupena: urria-ekaina.

■ Zehaztasunak: bi dantza hauek ikasteko aukera.

■ Irakaslea: Uarda (63725 6851).

Oroimen ikastaroa eta Esperientzia Eskola

55 urtetik gorako herritarrei zuzendua, asteartean zuen abiatzeko ikasturte berria. Asteartero bilduko dira, 16:00-18:00 artean Artzabalen. Lahar elkargoak eta Udalak bestalde, memoria lantzeko ikastaroa antolatuko dute adineko pertsonentzat. Informazio gehiago Gizar-te Zerbitzuetan (943 377 110).

Santuenea

Elkarteko eskaintza

Eskaintza zabala prestatu du auzo elkarteak ikasturte berri-rako:

Astelehenak:

■ 17:15 Tai-Chi

■ 19:10/20:15 Aeroyoga.

Astearteak:

■ 9:05/ 14:45 Aeroyoga.

■ 10:10 Errestituratu

■ 16:00-17:30 / 18:30-20:00/ 20:30-22:00 Hatha yoga.

Asteazkenak:

■ 18:05/19:10/20:15 Aeroyoga.

Ostegunak:

■ 09:05 Aeroyoga.

■ 10:10 Errestituratu

■ 17:00 Reiki.

■ 20:30-22:00 Hatha yoga.

Ostiralak:

■ 17:15 Tai-chi.

■ 19:00 Pintura ludotekan.

Hasiera data, izen ematea:

■ Santuenea 12koak:

Aeroyoga: irailak 16

(615 71 59 91).

Yoga: irailak 24

(619 79 11 70).

Tai-chi: Urriko lehen

astea (jubilatuetan). Izen

ematea: 675 006 445 (Maribi),

645 720 696 (Rosarito).

■ Santuenea 16koak

(Ludoteka):

Pintura (haurrak): Irailak 6

(630 20 84 71/ 670 02 77 31).

Jabekuntza eskolako ikastaroak

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatutako doako ikastaroetan izen emateko epea zabaldu dute:

■ Biodantza ikastaroa: urriaren 7tik abenduaren 16ra astelehenetan, 15:30-17:00, Bake Epaitegi atzeko lokalean (Nagusia 4). Irakaslea: Elen Kortaxarena Gesalaga. Izen emateko epea: urriak 5.

■ "Asertibotasuna eta ahalduntzea: komunikazio trebetasunak, harreman parekideak eta gatazken konponbidea": urriaren 3tik abenduaren 12ra ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean (Nagusia 4). Irakaslea: Pepa Boj6 (gaztelania). Izen emateko epea: urriak 1.

■ Izen ematea eta informazio gehiago: 943 377 110 edo parekidetasuna1@usurbil.eus

Usurbil Zabalik, sarean

Hutsik diren lokal komertzialak biziberritzea, merkataritza jardunerako berreskuratzea bultzatzea xede duen Usurbil Zabalik egitasmoak sarera jauzi egin du eta inoiz baino eskuragarriago dugu, Udalak sortu duen komunikazio tresna berriari esker. Udalak zabalik.usurbil.eus web orrialdean bildu du “tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak indartzea herriari bizitasuna emateko” ezinbesteko tresnatzat jotzen duen programa.

Web orrialde estreinatu berrian, “Usurbil Zabalik”-i buruz jakin beharrekoen berri jaso dezakegu; herri erdigunean hutsik egon eta programa honetan izena emana duten lokal komertzialen berri (egun 13 dira guztira), lokalon ezagutgarriak eta oinarritzko informazioa, Udalak lokal hutsotan negozio berri bat abiarazi nahi duenarentzat eskuragarri dauden diru-laguntzen gaineko xehetasunak, ekintzaile nahiz lokalen jabeek zuzenduriko ohar sorta,...

Saltoki hutsen poltsa

Usurbilgo Udalak hutsik diren lokal komertzialen poltsa publikoa osatzeko deia egin zuen joan den udaberrian. Momentuz, 13 jabeek eman dute izena. Baina hutsik duten lokalen jabeek soilik ez, enpresa proiektu bat duten ekintzaileei ere zuzendua dago.

Poltsa publiko honekin, “baretetik, jarduerarik gabeko lokala alokairuan edo salgai jarri nahi duten lokal-jabeek zerbitzu hau erabiltzea, eta, bigarrenik, Usurbilen enpresa proiektu bat garatzeko lokal baten beharra duten ekintzaileei erabilgarri dauden lokalei buruzko informazioa eskaintzea” da asmoa. Udalak lokal hutsen jabeen eta merkatal egitasmo bat gauzatu nahi duten ekintzaileen arteko



Eskabideak aurkezteko epeak zabalik segiko du irailaren 30era arte.

LAGUNTZAK

“Gehienez ere bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira: lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 euro hilean; bigarren urtean gastuaren % 30a, gehienez ere 200 euro hilean”

zubi-lana egingo du, “eta informazio guztia Usurbilgo Udalarren webgunean jasoko da. Hau da, informazioa zabaltzeko tresna nagusia webgunea izango da”. Abiarazi berri duten webgunea hain zuzen. Horrekin batera, poltsa honetan izena ematen duten lokal hutsetan “Usurbil Zabalik” biniloa jarriko dute jabeek.

Lokal hutsak biziberritzeko diru-laguntza deialdia

Egun itxita dauden merkatal gune hauetan negozio berri bat jarri nahi duenak Udalarren laguntza ekonomikoa jaso dezake, abian duen diru-laguntza deialdiari esker. Deialdi honen bidez, “gehienez ere bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira: lehenengo urtean alokairu gastuaren % 40a, gehienez ere 300 euro hilean; bigarren urtean gastuaren % 30a, gehienez ere 200 euro hilean”.

Egun herrian ez dauden zerbitzuek edo ixtear izan edo itxi berri diren jardueren jarraipena berma dezaketen proiektuak lehenetsiko dira. Ekintzailea Usurbilen bizi daiteke edo ez, ezingo du lokalik jabetzan izan, aurrez hutsik zegoen

alokairuan izan beharko du lokala, gehienez 5 langileko lan taldea izan beharko da... Eskabideak irailaren 30era arte aurkeztu ahal daitezke. Informazio gehiago otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo udaletxean.

Deialdi honek bi ebazpen izango ditu. Lehenengoa, apirilaren 30era arte aurkezturiko eskarien gainekoa, maiatzaren 23an eman zuen ezagutzera Usurbilgo. Eskakera bakarra aurkeztu zen tarte horretan. Oraindik halere, eskabideak aurkezteko epeak zabalik segiko du irailaren 30era arte.

Epe hau igarota kaleratuko du Usurbilgo Udalak, ordura arte jasotako eskabideen gaineko bigarren eta azken ebazpena.

Kabien urtebeteko egonaldiako beka deialdia

Aipatu elkarlan gunean diruz lagundutako urtebeteko egonaldia egiteko aukera eskaintzen du Usurbilgo Udalarren eta Kabienaren Hasiz Hazi beka deialdiak. 2019. urtean enpresa proiektu berri bat duen Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldatua dagoen ekintzaileari zuzendua dago deialdia. “Elkarlan

gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izango da. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago batekin ekin ahal izango diote lanari”. Horrekin batera, “Beterri-Buruntza ekinean, enpresak sortzen

laguntzeko aholkularitza zerbitzuak baliatu ahal izango dira”.

Epea, irailak 30

Informazio gehiago, maiatzaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo udaletxean. Eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea izango dute interesdunek.

Erraustegiko kutsagaien ikerketako lehen laginak hartu dituzte

Piztuko balute urtero analitikak egingo dituzte inguruan, kutsagaiak duten eragina aztertzeko. Proiektuaren sustatzaileek martxan jartzear dutela iragarria izanik, hilabete hasieran aurkeztu eta aurreko astean bertan abiatu zuen Zubieta Lantzenek erraustegiaren inguruko azterlan zientifiko independentea.

Azterlan hau egiteko Euskal Herriko enpresa bat eta Holandako Toxicowatch fundazioa kontratatu ditu aipatu elkarte zubietarrak. Tokiotik zuzenean Zubietara eta inguruotara etorritako fundazioko bi zientzialari Abel Arkenbout eta Kirsten Bouman joan den astean gurean izan ziren lehen laginak hartzen; Zubietako oilategi batean lehenik. “Arrautzak, oiloek jaten duten pentsua, belarra, lurra eta inguruko goroldioa... Kutsadu-



Zubietako oilategi batean hasi ziren laginak hartzen. Irudia: Zubieta Lantzen.

TOXICOWATCH FUNDAZIOA

Arrautzak, oiloen pentsua, belarra, lurra eta inguruko goroldioa... Kutsadura aztertzeko hartu dituzte laginak

ra aztertzeko” hartu zituzten laginak.

Aipatu moduan laginak har-

tzeko presa zuten, erraustegia martxan jarri aurretik hartu nahi zituzten. Eta planta piztuko balute, “urtero hartuko dituzte kutsadura laginak”. Hartara orain hartutako laginetatik bildutako datuak, erraustegia martxan jarriko balute, hurrengo urteetan jasotako datuekin alderatzeko aukera izango da.

Beste herri batzuetan ere bai

Ez bakarrik Zubietan hartutako laginak. Joan den astean zehar leku gehiagotan izan ziren laginak hartzen; “Zubieta herrian, Añorgan, Donostian, Usurbilen, Lasarten, Urnietan, Hernanin, Andoainen eta Zubietan, Realak entrenatzen duen lekutik eta ondoan dagoen Landa-berri ikastolatik hurbil”.

“Berriro eskatzen dugu erraustegia ez pizteko”

Zubieta Lantzen elkartetik ekimenaren berritasuna nabarmendu dute. “Guk dakigula, Espainiako Estatu mailan ekimen berritzailea dela herri mugimendu edo herritarren elkarte batek halako ikerketa zientifiko bat lotzea, kutsadura datuak gure eskuetan izateko eta egoeraren analisi zorrotza egin ahal izateko. Bide batez, berriro eskatzen dugu erraustegia ez pizteko”.

Diru bilketa kanpaina

Errausketaren Aurkako Mugimenduak diruz babestu eta lagunduko du Zubieta Lantzenek joan den astean iragarri eta Holandako Toxicowatch fundazioaren laguntzaz egunotan abiarazi berri duen Zubietako erraustegiaren kutsagaiak neurtzeko azterketa zientifiko independentea. Hala jakinarazi dute sare sozialen bidez. Horretarako, “crowdfunding” kanpaina abiaraziko du egunotan eta, “gizarteratzeko gure bitarteko guztiak jarriko ditugu”, iragarri dute.

“Borrokan jarraituko dugu”

Lan hau agintariekin egin beharko luketela diote baina

haiek “egin nahi ez duten lana gizarte mugimendu batek sustatzen duenez, lan serio honek herritar guztion laguntza behar eta merezi du”. Finantziarioa lortzeko asmoa du Errausketaren Aurkako Mugimenduak, norbanako nahiz eragileei zuzendua egongo den “crowdfunding” formularen bidez. Helburu argi batekin; “herritarrok kutsadurari buruzko gure datu zientifikoak gure eskuetan izan ditzagun”.

Bide batez, azken 16 urteotako helburu nagusiaren alde borrokatzen segitzeko asmoa agertu du aipatu mugimenduak. “Borrokan jarraituko dugu, ahal bada erraustegia

piztu ez dezaten, eta piztuko balute itzalarazteko”.

Irailaren 20an, herri bilera Zubietan

Gai honen inguruko xehetasun gehiago plazaratzeko herri bilera deitu du Zubieta Lantzenek ostiral honetarako (irailak 20) 19:00etan Kaxkapen. “Ekimen honek duen garrantzia eta oihartzuna kontutan hartuta, beharrezkoa ikusten dugu ikerketaren nondik norakoen xehetasunak zuekin partekatzea”, adierazi du aipatu elkarteak kaleratu duen oharrean.

Horrekin batera, Errausketaren Aurkako Mugimenduak ikerlan hau diruz laguntzeko “crowdfunding” kanpaina iragarri du egunotan. Zubietan dirua biltzen hasteko mahaia jartzekoa da Zubieta Lantzen, Endika Abril Erreboten Txapelketako jardunaldia jokatu den datorren igande eguerdian, irailaren 22an. “Ikerketaren kostuari aurre egiteko herritarren laguntza beharko dugu. Errausketaren Aurkako Mugimenduak iragarri du dagoeneko crowdfunding kanpaina, diru-bilketa egiteko”, ohartarazi du Zubieta Lantzenek. Ostiraleko herri bileran xehetasun gehiago eskainiko dituzte.

Asier Azpiroz Iztueta bertsolaria: “Gogotsu nago eta kantukideak ere egokiak dira”

Alamandegin ipini dugu hitzordua. Gu baino lehen iritsi da gonbidatua. Urrutitik sumatu dugu bera dela. Kanpoko petrilean eserita dago. Bizikleta alboan du. Lasai. NOAUA!koen zain. Larunbat arratsaldean ordea, beste aldarte batean izango da ziurrenik. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako fokoen argitan. Gaiak, hitzak eta doinuak ondo josi nahian.

**NOAUA! Ordiziako final zortzi-
renetan arituko zara larunbat
honetan. Prest, urduri, gogo-
tsu... Aldarte onean harrapatu
al zaitu?**

Asier Azpiroz. Gogotsu eta prest. Lau urtez behin egiten da eta hau hirugarren txapelketa dut. Lehenengotik hona erabat aldatu zait aldarte. Lehen txapelketan ilusio handia nuen. Gazte ginen eta dezente aritu ginen txapelketa presatzen. Bigarrenago oso serio hartu nuen. Azken lau urteotan ordea, lan arrazoiak medio, bertso mundutik aldentu samar ibili naiz bolada batzuetan.

**Eta une honetan, nola bizi
duzu txapelketa?**

Traszendentsia askoz gutxiago ematen diot orain. Txapelketa-



Larunbat honetan Ordiziako Herri Antzokian arituko da, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortziarenetan.

ASIER AZPIROZ

**“Txapelketaren aitzakian,
bertso eskolan aritu naiz
eta aspaldian egin gabe
nituen saio batzuk ere
egin ditut. Gogotsu nago”**

ren aitzakian, bertso eskolan aritu naiz eta aspaldian egin gabe nituen saio batzuk ere egin ditut. Gogotsu nago. Kantukideak ere egokiak dira.

**Zein bertso-eskoletan aritzen
zara?**

Lasarte-Orian eta Hernanin ibili izan naiz. Lagun artean ere bildu gara. Arratsaldean (irailaren 16an) gaztelumenditarrekin biltzekoa naiz. Eta tarteka, etxean bertan idazten aritu naiz. Bakarkako gaietarako bereziki, bertsoa atentzio gehiagorekin egitea gustatzen zait.

**Txapelketaren zurrumbiloen,
erraza al da hitzak eta doinuak
txirikordatzeara?**

Beti esaten dut: txapelketa da kantatzeko dagoen tokirik errazena. Megafonia ona jendea zu entzuteko, gaiak ere batz bestekotik gorakoak... Hortik aurrera, zuk zure buruari edo zure egoari eskatzen diot zuna.

Zu eliminatu edo ez eliminatu, hori ez da inportantea. Ez zuretzat ez bertsolaritzarentzat. Baina laster ala berandu, egoa agertuko da eta saiatzeko eskatuko dizu. Lasai nago hala ere, eta gogoz.

“Ofizioetako saioetan ibiltzen naiz erosoan”

**NOAUA! Prestaketa lan berezi-
rik egin al duzu?**

Asier Azpiroz. Plazan bertsoetan ibili ohi denarentzat garai berezia da. Dudarik gabe. Plazakoak libreko saioak izaten dira askotan, gairik gabekoak. Eta txapelketak aldiz, gai bati hiru bertso abestea eskatzen dizu. Bakarka, binaka... Dina-

mika ezberdina da.

Gu bezalakoentzat, plazan asko ez gabiltzanontzat, prestaketa berezia baino prestaketa eskatzen du. Nik eta nire inguruko askok boladaka funtzionatzen dugu. Astero biltzeko ohitura ez dugu eta txapelketa etortzen denean ohitura hori hartzen dugu.

Bizpahiru hilabete lehenago hasten gara txapelketako dinamikan murgiltzen.

**8ko nagusia, 8ko txikia, 10eko
txikia, puntuari erantzun,
kartzela... Zein da gustuko
duzun lana?**

Ez dakit esaten. Txapelketan badirudi oso markatuta

dagoela dena. 8ko handian serio egin behar da; 8ko txikian umorea baino txorakeria; puntu-erantzunetan kolpea; 10eko txikian sakona, bakarkakoan are sakonagoa... Ofizioetako saioetan ibiltzen naiz akaso erosoan, baina puntuka eta bakarka ere gustura aritzen naiz.

“Bertsoarekin dudan joan-etorriko lotura honetan, ‘etorriko’ garaia da txapelketa”

NOAUA! Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Urbietak, Ane Zuazubiskar, Beñat Lizaso eta Manex Mujikarekin batera arituko zara kantari. Pozik egokitu zai-zun taldearekin?

Asier Azpiroz. Bai. Orekatuta geratu dela esango nuke. Gurean gainera, bi neska daude. Txapelketan izugarritzko desproporzioa dago. Saillapen fasean hala zen eta orain ere hala da. Saio asko dira sei gizonak osatuak.

Eta bertsoarako, taldekide onak al dira?

Beñat Lizaso, Ainhoa Agirreazaldegia eta Manex Mujika berteranoagoak dira eta maila ona dute. Aitor eta ni tartean gaude eta Ane gaztea da, baina oso ondo ikusten dut. Talde polita dela uste dut.

Txapelketen inguruan giro berezia sortzen da. Barrutik beste modu batean biziko duzue, noski. Gustuko al duzu txapelketa garaia?

Gustuko dut. Bertsoarekin joan-etorriko lotura honetan, ‘etorriko’ garaia izaten delako. Entrenatzeko biltzen gara lagunekin, zure burua horretara jartzen duzu... Egia da txapelketa garaian mikro-mundu bat sortzen dela bertso-mundu barruan. Eta dena ez da dirudien bezain polita. Puntua dela eta ez dela, inbidiarik ere bada. Baina orokorrean gustuko dut.

Maila pertsonalean, nola bizi duzu txapelketa berri bat?

Saio eguna gerturatu ahala, gero eta beldur gehiago sentitzen dut. 20 urterekin galtzekorik ez nuen. Orain, 28 urterekin, txapelketan izena eman baduzu zure buruari zerbait eskatu behar diozu. Erri-matzearekin ez da nahikoa. Mundu ikuskeran, bertsoan



Beñat Gaztelumendi da Asier Azpiroren faborito nagusia. “Alaia Martin eta Agin Laburu ere hortxe ikusten ditut, beste guztien gainetik koska bat gorago”.

ASIER AZPIROZ

“Zabalkundeari begira, txapelketak mesede handia egiten dio bertsolaritzari.

Baina bertsoa egiteko moduari mesede txikia egiten diola esango nuke”

aritzeko moduan... Erakutsi behar da zer edozer bazarela bertsogintzan.

Txapelketetako saioa ez da plazako berbera. Konpetitibitatea sartzen da jokoan. Zuk osagai hau nola bizi duzu?

Zabalkundeari begira, txapelketak mesede handia egiten dio bertsolaritzari. Baina bertsoa egiteko moduari mesede txikia egiten diola esango nuke. Ezberdin egiten dugu bertsoan. Plazan funtzionatzen ez duen bertsoak txapelketan funtzionatu dezake.

Gainera, lehiakortasunak eraginda, hunkitzera jotzen dugu edo malko erraza bilatu izan dugu. Horregatik iruditzen zait txapelketa eta bertsoa nahikoa antagonista direla berez. Hala ere, bertsoaren zabalkundeari begira txapelketak mesederako dira. Ez dago zalantzarik.

Faborito nagusiak

Hasi besterik ez da egin baina faborito nagusirik ba al duzu?

Beñat Gaztelumendi. Alaia Martin eta Agin Laburu ere hortxe ikusten ditut, beste guztien gainetik koska bat gorago. Oihana Iguaran, Iñaki Apalategi eta Jon Maia ere, finalean seguru samar ikusten ditut. Beste bi toki leudeke libre. Gustatuko litzaidake gazteren bat hor ikustea. Gure belaunaldikoei edota bertsolari gazteagoei dezente kosta zaigu hor sartzea eta gustatuko litzaidake errelebo bat ematea. Bertsoarentzat ere ona izango litzatekeela uste dut.

Ordiziako final-zortzirena

- Irailak 21, larunbata.
- Ordua: 17:00.
- Ordiziako Herri Antzokian.
- Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo, Aitor Urbietak Aizpurua, Ane Zuazubiskar Iñarra, Asier Azpiroz Iztueta, Beñat Lizaso Alberdi eta Manex Mujika Amunarriz.
- Aurkezlea: Maddi Labaka Mayo.

■ Egin beharreko lanak: Binaka, gaia emanda, zortziko handian hiruna bertso. Binaka, gaia emanda, zortziko txikian hiruna bertso. Bakarka: lehen puntua emanda, zortziko txikian bina bertso. Binaka, gaia emanda, hamarrekoko txikian hiruna bertso. Kartzela: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.



Lasterketaren inguruko emaitzak 18. orrialdean topatuko dituzue. Irudi gehiago noaua.eus atarian.

Ostiral honetan, Usurbil lehenesteko merkataritza festa



Buruntzaldeko Udalak elkarlanean aritu dira. Ostiralean herri bakoitzak bere aldarrikapen festa propioa antolatuko du.

Erosketak herrian bertan egiteak duen garrantziaz eta Beterri-Buruntzako tokiko merkataritzak bizi duen egoera kezkagarriaz ohartarazteko merkataritza festa antolatu dute ostiralerako (irailak 20) bost udalerriek; Andoainek, Astigarragak, Hernanik, Lasarte-Oriak eta Usurbilek.

Helburu argi batekin; udalerriotan bizi garenontzat erosketak egiteko herria bizileku dugun bera izatea sustatzeko,

eta horrek duen garrantziaz jabetzeko. “Helburua, erosketak bertako dendetan egitea zein garrantzitsua den jendea sentibilizatzea eta dendei esker herrian garatzen den bizitza erakustea da”.

Buruntzaldeko herri bakoitzak bere festa propioa antolatu du

Bost udalerriok elkarlan honetara batu dira. Ostiral honetan herri bakoitzak bere aldarrikapen festa propioa antolatuko du, udalerri bakoitzak bere

herri izenarekin egokituko duen “nire aukera, Beterri-Buruntza!” lelo orokorrenpean.

Gogoetarako gonbitea

“Jendea jai honetaz gozatu eta ea zer honako herri eredu nahi dugun gogoeta egitera” animatu dute hilaren 20an, asteartean ekimen hau aurkezteko Astigarragan bildu ziren eskualdeko bost herrietako udal eta merkatarien elkarteetako ordezkariak.

Artisautza azokan izena emateko epea zabalik

Ohiturari jarraituz, azaroaren leian egingo da Usurbilgo artisautza azoka. Aitzaga elkar-teak herriko artisauei gonbitea luzatu nahi die, bertan parte har dezaten.

Azken eguna: irailak 30

Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da eta animatzen direnek artisautzaazoka@gmail.com postara idatzi beharko dute “eskaria eginez eta zer lantzen duten esanaz”.



Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da.

Euskaraldirako bilera irekia

2020ko Euskaraldia prestatzeko bilera irekia irailaren 24an, datorren asteartean honenbestez, arratsaldeko 17:00etan Potxoenean, Euskaraldia Usurbilen sustatzen segitzen duen herritar taldeak deituta. Estreinako edizioak izandako eraginarengatik inguruko ikerketako Euskal Herri mailako emaitzak ezagutzera eman berrikan ospatuko da bilera ireki hau. Azterlanak ondorioztatu ahal izan duenez, Euskaraldiak nabarmen astindu ditu ekimenean parte hartu zuten Ahobizi eta Belarriprest guztien hizkuntza jokaerak. Gogoan izan, Udalaren enkarguz Sozio-linguistika Klusterrak herri mailako ikerketa bideratu zuela. Emaitzak azaroan ezagutuko ditugu.

Udajolaseko argazkiak

Fotomuntaia modukoa osatu dugu Udajolaseko argazkiekin. CD-a jaso nahi duenak jar dadila NOAUA!rekin hartuemanetan. Deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo etorri kultur elkarte bulegora. Eskaera egiterakoan zehaztu zuen haurra(k) ze mailatakoa den edo diren; HH edo LH-koa. CD-a prest dugunean berriro eskatu duzuenok jarriko gara hartuemanetan, bila etor zaitezten. Eskaerak egiteko irailaren 27ra arteko epea duzue. Epe muga hori baita, kultur elkar-tean dugun galdutako arroparen bila etortzeko ere.



Eskaerak egiteko irailaren 27ra arteko epea duzue.

Iñorkiñak: “Etxean bezala aritu gara”

DISKO BAT GRABATU DUTE ETA IRAILAREN 27AN AURKEZTUKO DUTE PATRIN

Iñorkiñak talde usurbildarrek diskoa plazaratuko du hilaren amaieran eta Patrin egingo dute aurkezpen ekitaldia hilaren 27an. 12 abestiz osatutako diskoak, musika tradizionala eta egungoa ditu oinarri. Taldeko lau kideekin izan da NOAUA!, diskoaren xehetasunen berri izateko.

NOAUA! “Ilargi betea” abestia entzungai daukazue jada, baina disko oso bat plazaratuko duzue hilaren amaieran. Zergatik aukeratu duzue kanta hori aurrerapen abesti gisa?

Mikel Alkorta: Nik uste dut gehienbat Kakik esan zigulako bere ustez diskoko “hit”-a izango zela.

Luken Arkarazo: Guretzat egokiena izango zena aukeratzeko esan zigun. Disko bat ateratzean, aurrerapen gisa beti saiatzen gara kanta onenetsuenetako bat aukeratzeko. Jendeak entzungo duen lehenengo hari hori, datozenei tira egingo diena.

Beñat Urteaga: Abesti alaia behintzat bada eta horrekin jendea errazago hurbiltzen da.

Zenbat abesti izango ditu diskoak eta zein izen jarri diozue?

M.A.: 12 kantu izango dira, baina diskoak ez du izen



12 abestiz osaturiko diskoa grabatu dute.

MIKEL ALKORTA

“Triki-pop edo izan liteke, rap-a ere sartu dugu, abesti tradizionalak, arin-arinak... Hitz batean definitzeko zaila”

konkreturik izango. Taldearen aurkezpen gisara Iñorkiñak izena izango du.

B.U.: Hori da, lehenengo diskoa homonimo bat da.

Kolaborazioak ere izan dituzue.

M.A.: Guk animatu ditugu gehienak: Natali Izagirre, Ixak Arruti, Joseba Tapia, Igor

Alkorta... Irrintzilari bat ere bada herrian parrandetan eta asko ikusi izan dudana eta haren irrintziak asko gustatzen zaizkidana: Igone Goikoetxea. Hari ere esan genion irrintziren bat botatzeko.

B.U.: Behar dugun jendea nahiko gertu badaukagu eta ez dugu urrutira joan beharrik izan.

Jokin Irastorza: Erabat irekia izan da, estilo guztietara moldatuko direnak. Igor panderoarekin aritu izan da beti eta Natali eta Ixak edozein musikatararekin egokitzen dira.

Garate Estudio ezagunean egin duzue grabaketa. Zer moduzko esperientzia izan da? Nolakoa

da Kaki ekoizle ezagunarekin lan egitea?

M.A.: Oso esperientzia ona izan da. Nire lehen esperientzia izan da estudio batean grabatzen.

L.A.: Diskoaren grabaketa aurretik hasten da prozesua, Kakik produkzio lanak egin ditu: abestiak entzun, produzitu... Entseguren batera ere etorri zen eta abestiren batean eskua ere sartu zuen. Grabaketetan gitarra zatiren bat edo beste egin du. Ez da soilik grabazio teknikaria izan, ekoizle lanean ere aritu da.

B.U.: Nik uste eroso sentiarazi gaituela. Nik aurretik disko gehiago ere grabatu ditut, baina beti urduri jartzen naiz; zatiren bat ateratzen ez denean mila aldiz errepikatu behar. Oraingoan ez da horrelakorik gertatu, erraz egin dugu dena. Jokin eta biok batera grabatu genituen bateria eta baxua eta horrek ere frekkura ematen dio. Sentsazio oso ona izan da.

J.I.: Etxean bezala aritu gara. Grabatzeko modu horretan ni ere lehen aldiz aritu naiz. Bakarka aritze horrek diskoaren aurkako borrokan aritzea dirudi, baina binaka egite horrek entsegu eta kontzertuen antz gehiago du; ohituago gaudela behintzat.

Hiru rockero trikitilari batekin

NOAUA! Nola definituko zenukete zuen proposamena?

M.A.: Ez dakigu taldea sailkatzeko hitz bakar batean. Triki-pop edo izan liteke, rap-a ere sartu dugu, abesti tradizionalak, arin-arinak... hitz batean definitzeko zaila.

B.U.: Nahiko nahasketa kurioa egin dugu. Hiru rockero trikitilari batekin elkartu gara [kar, kar, kar]. Tradiziotik hasita gaur arte. Abesti batzuk country kutsua ere hartu dute. Guk entseguetan halako itxurarik ez genien hartu, bai-

na azkeneko emaitza ikustean mendealdeko film baten antza du.

J.I.: Ez dugu esango ezer berria egin dugunik, baina handik eta hemendik hartutako nahasketak egin ditugu. Etzakit taldearen antzeko zerbait

izan gintezke.

L.A.: Abesti batzuk rockeroagoak dira, gitarra gehixeagorekin. Beste batzuk, aldiz, fandango eta arin-arinak dira letrarekin. Denetik dago. Hori bai, 12 abestietatik 4k ez dute letrarik, instrumentalak dira.

“Argi utzi nahi dugu talde bat garela, ez erromeria talde bat”

Lehen diskoa 2019an aterako badute ere, taldearen sorrera lehenagokoa da. Trikitilari eta rockero batzuen loturatik sortutako taldeak, kontzertu txikiak ere eman ditu lehenago.

NOAUA! Zergatik Iñorkiñak?

Mikel Alkorta: Iñorkiña garoatik dator. Landare hori erabili izan da urte askotan, koltxoia egiteko eta Nafarroa aldean iñorkiña deitzen diote horri. Horregatik, diskoaren azalean garoa ageri da.

Taldeak baditu urte batzuk. 2017ko herri galdeketa abestia zuek egin zenuten behintzat.

M.A.: Hori egin genuen eta agur [kar kar kar]. Sartu dugu diskoan abesti hori, baina letra aldatuta. Sortu ginen Usurbilen Kilometroak festa egin zenean, inguru horretan.

Jokin Irastorza: Erromeria txikiren bat egiteko elkartu izan gara.

Beñat Urteaga: Lehen kontzertua Bertsio Gau batean izan zen. Hortik aurrera pixkanaka gauza txikiak egiteko geratzen hasi ginen noizbehinka eta gaurdaino.

Luken Arkarazo: Mikelek beti



“Iñorkiña garoatik dator eta garai batean koltxoia egiteko erabiltzen zen”.

BEÑAT URTEAGA

“Huntza edo Esne Beltza ere taldeak dira; trikitixadun taldeak. Ez dira erromeria taldeak”

izan du gogoia abestiak asmatu eta horiek jazteko. Urteetan gurekin elkartu izan da momentu puntualetan.

M.A.: Azkenean konbentzitu ditut. Diskoa prestatzeko ere Kaki errietan hasi zitzaigun, izango dira pare bat urte diskoarekin bueltaka.

Taldea sortu zenutenetik gaurdaino aldaketak ere izan dira

talde kideen artean.

M.A.: Hasiera batean baxuan Aroa egon zen, baina gerora erabaki zuen aurrera ez jarraitzea. Hor gero Beñatekin aurkitu ginen, eta hori izan da fundamentua jartzeko modua.

B.U.: Fundamentuzko norbait falta zitzaion talde honi [kar kar kar].

Zuek talde modura definitzen zarete ala erromeria talde modura?

J.I.: Gu trikitixadun talde bat gara.

B.U.: Huntza edo Esne Beltza ere taldeak dira; trikitixadun taldeak. Ez dira erromeria taldeak. Gozategi estiloko zerbait izan gaitezke.

L.A.: Argi utzi nahi dugu talde bat garela, ez erromeria talde bat. Gu kontratatzerakoan inork ez dezala pentsa “Txanpon baten truke” edo “Kolare kolore” joko dugunik.

J.I.: Bertsioen bat edo beste jo genezake, baina kontzertua pixka bat jazteko.

Garai batean trikitixa modan egon zen, baina orain egoera apalagoa da. Nola ikusten duzue trikitixa taldeen egoera?

J.I.: Hori Kakik esan zuen oso ondo. Lehen askoz ere gehiago kontsumitzen zen eta sortu ere ugari egiten zen. Denborarekin sorkuntza horrek beherakada izan du eta galdu egin da. Oraindik ere garai hartako musika kontsumitzen da, baina sorkuntzari emanez gero, nik uste kontsumituko litzakeela. Ikusi besterik ez dago Huntzaren efektua.

B.U.: Egia da geratu egin direla talde horiek. Gozategik oraindik ere jarraitzen du, baina ez daukate lehengo lan erritmo bera. Huntza etorri den bezala, musika estiloak indartzen jarrai dezake.

M.A.: Garai batean egon ziren Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider... Geldialdi bat egon da gero. Eskaera nik uste dut oraindik ere badagoela.

“Eguraldia ona bada, aurkezpena terrazan egingo dugu”

NOAUA! Patrín egingo duzue aurkezpena, zerbait bereziagatik?

M.A.: Patrik diru laguntza eman digu diskoaren grabaketarako. Saizar eta Patri izan dira lagundu gaituztenak zentzu horretan, eta Patri aukeratu dugu lehen-dabizikoa izan zelako laguntza eskaintzen eta herrian kokapen egokia dauka. Gune

oso polita da, baina ez da inoiz horrelako gauzetarako erabili. Aukera polita iruditu zitzaigun elkarlanean gune hori aprobetxatzea. Nik uste lehenak izango garela, baina ez azkenak.

J.I.: Sarrera irekia da, baina afaltzeko sarrerak amaituta daude. Sold out. Aurkezpenean terrazan egiteko asmoa dugu, eguraldi ona bada.

B.U.: Herrian diskoak salgai jarriko ditugu puntu ezberdinetan, baina oraindik ez dugu erabaki non. Plataforma batzuetara zabalduko dugu diskoa ateratzen den momentuan. Zuzenekoetan ere saldu nahi ditugu diskoak.

Kontzertuak itxita daukazue?

M.A.: Airean dago gure etorki-

zuna. Ez daukagu kontzerturik itxita. Durangoko Azokan jotzeko asmoa daukagu, baina oraindik urruti dago eta ikusi beharko da. Urriaren 19a baino lehen bizpahiru kontzertu ixtea gustatuko litzazuke.

B.U.: Urtarrilerako bat aurreikusita daukagu, baina oraindik ez dugu itxi ezta ere.

L.A.: Denok Patrira etorri edo ahaztu gutaz.

Batukada feministak abiaraziko ditu Santueneko jaiak

Usurbilgo jaietan estreinakoz eskaini zuten emanaldi arrakastatsuen ostean, Santueneko jaiak girotuko dituzte ostiral honetan (irailak 20).

Batukada tresna gisa hartuta, ahalduntze lan sakona plazara atera zuen Usurbilgo batukada feministak joan den Usurbilgo jaietako parranda gauetako batean. Plaza hartu eta emanaldi ikusgarri eta hunkigarria eskaini zuten.

Ainara Sarasketak zuzenduriko Usurbilgo batukada feministak frontoi erdira sartu eta plaza hartu zuen. Jende mordoa batu zuten erritmo bizi eta alaien bueltan. Ikusterik izan ez bazenuten, Santueneko jaietan itzuliko dira plazara. Irailaren 20an, festak hasi eta berehala auzoa girotzen ariko dira 18:30etatik aurrera.

Santueneko Jaiak 2019

Irailak 20, ostirala

- 17:00 Txupinazoa eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:30 Buruhandiak.
- 18:30 Usurbilgo Batukada Feminista.
- 19:00 Sardina jana.
- 21:00 Herri afaria. Txartelak Santueneko jubilatuen tabernan, Ibai Ondon eta Aitzagan salgai.
- 23:30 Kontzertuak: Herenegun, Kilimak, Larrian Gozo.



Batukada tresna gisa hartuta, ahalduntze lan sakona plazara atera zuen Usurbilgo batukada feministak.

Irailak 21, larunbata:

Umeen Eguna

- 11:00 Umeen jolasak eta pintura lehiaketa.
- 13:00 Buruhandiak.
- 14:00 Haur bazkaria (norerak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).
- 16:00 Mus txapelketa (izen ematea 15:30-16:00).
- 16:00 Haurrentzako puzga-

riak.

- 17:30 Txokolatada Gure Elkartea jubilatuek elkartean.
- 19:00 Buruhandiak.
- 20:30 Musikarien afaria.
- 00:00 Dj Gaua: Dusaint, Inkilt, Xiarroman, Anwolt.

Irailak 22, igandea

- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.

- 14:00 Herri bazkaria. Txartelak Santueneko jubilatuen tabernan, Ibai Ondon, Aitzagan eta Artzabalen salgai.
- 17:00 Natali akustikoan.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:30 Piper dastaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea: Santueneko Jai Batzordea.

Eguzkiren 50. urtemuga

50 urte bete berri ditu Munalurran kokatuta dagoen Eguzki elkarteak. Urteurrena ospatzeko, egun osoko festa egin zuten aurreko asteburuan. Goizen jokuak egin zituzten heldu eta gazteek. Bazkari jendetsua ondoren. Bazkalosteant, haurren gozamenerako puzgarriak jarri zituzten eta buruhandi bat ere ibili zen.



Giro ederra lagun izan zuten Munalurrako elkarteko kideek.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
EGIN ZURE ESKAERA WhatsApp-ETIK!

Patxi
Patri 2022 jaietxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

“Hil arte bizi”, Floxbinen lan berria entzungai

10 abesti berriz osaturiko bilduma plazaratu zuen Floxbin Usurbilgo musika taldeak irailaren 12an sarean. “Hil arte bizi” lan berria entzungai duzue floxbin.bandcamp.com atarian. Egun berean gainera, “Usteak erdia ustel” izeneko kantaren bideoklipa ere kaleratu zuten. Youtuben duzue ikusgai eta entzungai.

Joxeba Agirresarobe, Rafael Bajo, Iñigo Roteta eta Iñaki Udaberen lan berria, “Iñaki Abuin-ek (Mad Butcher) grabatua eta masterizatua” izan da, Phantom Studios-en. “Nahasketa Iñaki Abuin eta



Era berean, “Usteak erdia ustel” izeneko kantaren bideoklipa kaleratu dute.

Flobin-en artean. Irudia Unai Araneren eskutik.”

2016koa da Floxbinen aurreko lana, “Ak!” izeneko.

10 abesti berri

Oraingoak 10 abesti berri dakartza, bat ingelesez gainerakoak euskaraz.

“Gazteok zuekin”

Astelehenean epaitu zituzten euskal preso-aren eskubideen lan egindako 47 euskal herritar Espainiako Auzitegi Nazionalan. Aldeek adosturiko akordioari esker, 11/13 sumarioko auziperatu ia denek (45ek) ez dute espetxera joan beharrik izango.

Auziperatuetak bik –Arantza Zulueta eta Jon Enparantzak-bai, hilabete batzuetarako. Modu honetan, Fiskaltzak hasiera batean euskal herritarontzat eskaturiko 601 urteko espetxe zigorra hilabete batzuetara nabarmen murriztu du. “47ak herrian” izan nahi



11/13 sumarioko epaiketa salatzeke hamaika ekimen egin dira egunotan.

dituztela aldarrikatu, haiei babesa adierazi eta epaiketa salatzeke hamaika ekimen egin dira azken hilabeteotan.

Gazteen argazkia

Usurbilen gazte argazkia atera zuten irailaren 13an.

Azken ostiralean, Oriora

Hilabete amaierako elkarretaratzea ez da egingo. “Xua Gurasoekekin etxera ekimenaren baitan sinadura bilketa eta abesti bereziaren aurkezpena egingo dugu irailaren 27an, Orion. Eta hara joateko deia egingo dugu”.


Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsotan arituko dira Aginagako sagastietan

Iaz Zubietan egin bezala, aurten eskenatokiz aldatu eta Aginagako erriberetako sagastietan barrena ibilal-ditoxa antolatu du Sagar-doaren Unibertsitateak igande honetarako.

Goizeko 11:00etan finkatu dute biltzeko hitzordua Aginagako plazan. Handik aipatu moduan oinez, errio ondoko sagastietara, ohorezko bi bidelagunekin; ibilaldia bertsoz girotuko baitute Maialen Lujanbiok eta Andoni Egaña.

Gidaria, Jakoba Errekondo

Txangoak helburu argi bat du; “Sagardoaren Paisaia Kulturala ezagutzea”. Gai honi buruzko argibideak eskainiko ditu ibilaldian zehar, Jakoba Errekondo usurbildar paisajistak. Goiza amaitzeko, mokadutxoa izango da Aginaga sagardotegian.



Goiza amaitzeko, mokadutxoa izango da Aginaga sagardotegian.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

ETXETRESNEN

KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665

XABIER Usurbil

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Usurbil, lasterkari bizien topagune

Lasterkarien bilgune izan genuen hamabigarrenez Usurbil irailaren 15ean ospatu zen Baxurde Krosari esker. Beroa izan zuten bidelagun 133 parte hartzaileek.

Banaka, binaka, taldean heldu ziren 133 lasterkariak plazako helmugara. Izan zen azken metroak amaiera puntuari bizkar emanda egin zituenik, seme-alabei eskutik helduta proba amaitu zutenak... Denak irribarre batekin eta erronka bete izanaren pozaz.

Lehen usurbildarrak, betikoak

Bitxikeria moduan, oriotarrenak izan ziren sailkapeneko lehen zazpi postuetatik lau. Aldiz lehen hiru emakumezkoetatik bi Usurbilgoak izan ziren. Eta helmugara heldutako lehen bi usurbildarretan aldaketarik ez sailkapenean ikusiko duzuenek. Edizio honetan parte hartu duten 133 lasterkarietatik aipatzekoa beste behin, usurbildarren parte hartzea.

Kiroltasun marka hausten

Helburua ez zen itzulia ahal bezain lasterren amaitzea. Lehiakortasuna soberan zuen joan den igandeko Baxurde Kros Txikiak. Kirolzaletasuna, eta lagun arteko giro ederra zituen zutabe nagusi hitzorduak. Eta oinarri horietan bai, marka one-na hautsi zuten krosleri gaztetxoek.

LEHEN 3 GIZONEZKOAK

- 1-Hossain Kaanache Amgharaf 36:44 (Orio)
- 2-Aitor Mimenza Castillo 36:45 (Elorrio)
- 3-Kamel Ziani Huasisi 37:05 (Orio)

LEHEN 3 EMAKUMEZKOAK

- 33-Lourdes Colomo Artola 43:13 (Zizurkil)
- 37-Rosa Uribe Navarro 44:39 (Usurbil)
- 55-Uxue Fernandez Lasa 46:47 (Usurbil)



Iñaki Gerika eta Rosa Uribe izan ziren Baxurde Kroseko lehen usurbildarrak helmugan.

LEHEN BI USURBILDARRAK

- 6-Iñaki Gerika Juan 37:26
- 37-Rosa Uribe Navarro 44:39

USURBILDARREN SAILKAPENA

- 6-Iñaki Gerika Juan 37:26
- 16-Karlos Fernandez Esteban 39:27
- 17-Benat Bereziartua 39:51
- 37-Rosa Uribe Navarro 44:39
- 40-Salvatore Arruti Aramburu 44:42
- 45-Guillermo Rueda 45:28
- 55-Uxue Fernandez Lasa 46:47
- 56-Alfonso Palacios 46:48
- 57-Sergio Martin Cantero 47:01
- 61-Ander Orena Irureta 47:20
- 63-Ibai Orena Irureta 47:25
- 67-Julen Lazkano 48:21
- 68-Arturo Rojas 48:30
- 75-Xabier Dominguez Martin 48:57
- 76-Jokin Zubiaur Blasco 49:04
- 77-Xabier Carbayedra 49:08
- 78-Lucas Arrospide Jauregui 49:09
- 82-Aitor Ormazabal Otxoa 49:50
- 84-Gorka Etxeberria Gurrutxaga 50:39
- 89-Enrike Huizi Olaizola 51:41

- 90-Jon Rueda Echeverria 51:44
- 91-Karmele Liceaga Alcantara 51:44
- 94-Aimar Zuloaga Seguro 52:46
- 95-Oliver Garcia Linares 53:08
- 100-Ainhoa Torcida Olasagasti 54:51
- 101-Josu Udabe Pagola 54:52
- 102-Agurtzane Alkorta Urdanpilleta 54:53
- 107-Jon Guembe Urrea 55:57
- 109-Peru Beloki Seguro 57:37
- 110-Eneko Portu Irasuegi 57:39
- 111-Joxemari Portu Azpiroz 57:44
- 112-Maitane Eizagirre Bruño 57:48
- 113-Eli Eizagirre Bruño 57:50
- 114-Jon Mikel Zabala Arizmendi 58:15
- 115-Oroitz Altuna Ibarburen 58:15
- 117-Gema Molina 58:20
- 119-Ana Mediavilla 58:21
- 120-Intza Makuso Iribar 59:54
- 121-Ander Jauregi Urdanpilleta 59:55
- 122-Maialen Esoain Peña 1:00:15
- 124-Andrea Iturain Aizpurua 1:00:19
- 125-Yolanda Redruello Gomez 1:00:28
- 127-Javier Martinez Manso 1:00:30
- 128-Cesar de la Fuente Garcia 1:00:49
- 133-Oroitz Unanue Seguro 1:14:47

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Kiroldegiko ikastaroak doan probatzeko aukera

K irol urte berriko ikastaroak abiatu aurretik proba egin nahi dutenek, Oiardo Kiroldegiak aste honetarako antolaturiko proba saioetan doan parte hartzeko aukera dago; ostegun honetan, 18:30ean aquazumba eta ostiralean, hilak 20, 18:45ean jumpfit gazte.

Helduentzako hain zuzen, spinning, pilates, 3. adina, zunba, total training, jumpfit, bizkar osasuna, hipopresiboak, yoga-mindfulness, mantenu gimnasia, eskalada ikastaroak iragarri ditu Kiroldegiak.

Ur jarduerak

Uretako jardueretan, ur entrenamendu gidatua, matropilates, aquagym, aquazumba, igeriketako saioak (hastapena, hobekuntza eta entrenamen-



Egunotan izango da ikastaro ezberdinak ezagutzeko aukera. Tartean, jumpfit delakoa (irudian). Ostiral honetan, 18:45ean, gazteei zuzendua.

dua). Haurrentzako zumba, eskalada, jumping, ur jarduera ezberdinekin batera.

Informazio gehiago:
943 37 24 98
kirola@usurbil.eus

Jardunaldi berri bat Endika Abril Txapelketan

B i neurketa Zubietan jokatuko dira, igande goizeko 11:00etan hasita: Zubieta-Behar Zana (Villabona) eta Hazparne-Zaharrer Segi. Itzuli bakarreko ligaxkako azken jardunaldia izango da.

Jardunaldi honen amaieran hilaren 29ko finalerdietara sailkaturiko lau taldeak zeintzuk diren jakingo da.

Finala, urriaren 6an

Atzerapenik ez bada, urriaren 6ko asteburuan jokatu da 56. Endika Abril Errebote Txapelketako final handia.



Jardunaldi honen amaieran hilaren 29ko finalerdietara sailkaturiko lau taldeak zeintzuk diren jakingo da.

Zubieta, irabazten

Endika Abril Errebote Txapelketari buruzko beste datu bat.

Aurreko jardunaldian, 13-10 irabazi zion Zubietak Hazparneko taldeari.

Usurbil K.E.-ren batzarra

Larunbat honetarako (irailak 21) deitu dute hitzordua, goizeko 11:00etan Potxoenean. Aurreko denboraldiko kontuen azalpena eta kirol arloko emaitzak hartuko dituzte ahotan. Galderak eta iradokizunak egiteko aukera izango da baita.

Eskubaloit partidak

Irailak 21, larunbata

■ 12:30 Kadete territorial neska: Usurbil K.E.-Txikixa Taberna Pulpo K.E.

■ 16:00 Kadete territorial mutilak: Usurbil K.E.-Ordizia Orkli

■ 17:30 Jubenil territorial neska: Usurbil K.E.-Tolosa C.F. Eskubaloia

Pirinioetara Andatzakoekin

Estos bailarara asteburu pasa antolatu du Andatza M.K.K.-k irailaren 21 eta 22rako. Larunbat goizeko 6:00etan abiatzekoak dira autobusez Oiardo Kiroldegitik. Bost hirumilako egin asmo dituzte. Bi eguneko txango honetan parte hartzeko ezinbestekoa zen uztailaren 15a baino lehen izen ematea. Informazio gehiago: andatza.com

Izen ematea Futbol Eskolan

2019-20 denboraldirako izen ematea zabaldu du Usurbil F.T.-k Futbol Eskolan. Deialdia, 2008, 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotako gaztetxoei zuzendua dago. Izen emateko hurbildu futbol klubak Haranen duen bulegora ostegun edo larunbat honetan, irailaren 19 edo 21ean hurrenez hurren, 17:30-19:30 artean. Bertara joan ezin dutenek telefono zenbaki honetara deitu dezakete: 634 46 47 97 (Andar).

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kafeakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbil erdikaldean, 2 logelako pisu bat alokatzen dut. Tel. 685 720 124.

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserrir bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska baten bila gabilta orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueto ku-

deatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe asegurueto, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxea-ekin. Betebeharrak: Profesional-tasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interno, egunez edo orduka. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Interna, egunez edo orduka. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa lanak, haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziekin. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala



Zorionak Miriam!

Larunbatean 19 urte. Ondo ondo pasa dezazula etxeko guztien partez!!!



Zorionak Aimar!

Izeba, osaba eta lehengusua irrikitan gaude elkarrekin ospatzeko. Asko maite zaitugu!

Heriotzak

Angel Matxain Maiz

72 urterekin hil zen irailaren 11n Usurbilen



Joxe Tolosa Ulacia

84 urterekin hil zen irailaren 13an Aginagan



lanean hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno

edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo

externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Asteaz 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Inter-

no, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz eta plaza saldu nahiko nuke. Interesa duenak deitu: 699 421 238 Iñigo.

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616 273 785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxeetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak presatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreata ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 19	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 20	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 21	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 22	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena 23	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 24	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 25	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Irailak 19 - Irailak 29

Osteguna 26	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 27	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 28	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 29	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

20 ostirala

- **Santueneko jaiak.** 17:00etan txupinazoa eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik. Ondoren, globo gerra. Egitarau osoa: ikus 16. orrialdea.
- **Herri bilera Zubietan.** 19:00etan Kaxkapen.

21 larunbata

- **Santueneko jaiak.** Ikus 16. orrialdea.
- **Usurbil K.E.-ren batzar nagusia.** 11:00etan Potxoenean.
- **Pirinioetako Estos bailarara Andatzakoe-kin.** Uztailaren 15a baino lehen eman behar zen izena.

22 igandea

- **Santueneko jaiak.** Ikus 16. orrialdea.
- **56. Endika Abril Errebote Txapelketa.** Zubieta-Behar Zana, 11:00etan errebote plazan.
- **Bertso-ibilaldia Aginagan.** Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin. 11:00etan Aginagako plazan.

Iñorkiñak taldearen disko aurkezpena



Irailaren 27an, Patrin aurkeztuko dute diskoa zuzenean.

Sarrera guztiak salduak dituzten arren, agendari eskainitako txoko honetan gogorarazi beharreko hitzordua; kontzertu gau berezia antolatu du Iñorkiñak taldeak irailaren 27rako.

Estreinako diskoa aurkeztuko dute, eguraldi ona bada, Patriko terrazan. Mikel Alkorta (ahotsa, trikitixa), Luken

Arkarazo (gitarra, ahotsa), Beñat Urteaga (baxua) eta Jokin Irastorza (bateria) laukoteak kolaboratzaile talde batekin elkarlanean ondu eta udaberrian, Kaki Arkarazoren gidaritzapean grabaturiko Andoaingo Garate estudioetan diskoaren aurrerapen kantua Badok agerkari digitalean duzue entzungai: "Para-Parixen".

Ostiral honetan, herri bilera Zubietan

Zubieta Lantzenek erraustegiaren kutsagaiak neurtzeko neurtzeko abiaturiko azterketa zientifiko independenteari buruzko xehetasunak eskainiko ditu, ostiralerako (irailak 20) 19:00etan Zubietako Kaxkape egoitzan deitu duen herri bileran. Errausketaren Aurkako Mugimenduak iragarritako crowdfunding kanpainari buruzko argibideak ere eman go dituzte.



Bilera Kaxkapen egingo da, 19:00etan hasita.

Datozenak

Harria Hitz, marrazkilarien eskutik

Ikasturtea gogotsu eta umorez hasteko, irailaren 28rako "Harria Hitz-Dzirt Dzart" ekimena prestatu du Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresak. Izena ematen dutenek *Harria hitz* ibilbide gidatua osatuko dute lehenbizi eta *Dzirt-Dzart* saioaren lekuko izango dira gero. "Izenak berak dioen bezala, bat-batean marrazteko saioa da. Joseba Larratxe eta Antton Olariaga marrazkilariak eta Idoia Torregarai aurkezlea izango dira protagonistak".

Marrazkilariak aurkezlearen esanetara

Marrazkilariek aurkezlearen esanetara marraztuko dute, bertso saioetan egingen den moduan gutxi gorabehera.

Irailak 28, larunbata

- 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean.
- 11:15 Dzirt-Dzart saioa Joseba Larratxe, Antton Olariaga eta Idoia Torregararekin.
- Azalpenak euskaraz emango dira.
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 / info@kultour.pro
- Bisita doakoa izango da. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez).



Joseba Larratxe eta Antton Olariaga marrazkilariek hartuko dute parte.

IRAILAK
26-28



Hey Ho! Let's Go!

DISKOGRAFIA ETA
ZINEMATOGRAFIA
BILDUMAZALETASUNAREN
NAZIOARTEKO AZOKA

Bildumagile binilo, CD, pelikula eta
artikuluak erosi, saldu edo trukatzeko.



Benetako
UNEAK

urbil.es

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019 (ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>> 1, 15, 29



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiuak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



Irailaren 2tik aurrera, matrikulazioa zabalik



Etumeta Euskaltegia

607 609 379
usurbil@aek.org